


“Cliffhanger”: atalak amildegitik zintzilik utzi gaitu!

“CLIFF” (amildegia) eta “hang” (zintzilikatu). Hau da: “Cliffhanger”, “amildegitik zintzilik”. Eta zertara dator ingeles ikastaro azkar hau? Lasai, ez izutu, hori ondo egiteko *Muzzyren* klaseetara jo beharko duzue. Kasu honetan, hitz horrek telesail eta filmekin duen lotura zuzena azaltzera dator, naiz eta kontziente ez izan, “Cliffhanger mementoa” oso maiz ikusten dugun zerbait delako.

Atal konkretu baten azken eszenan ikusi edo sentitu daiteke normalean, baita film edo liburu baten azken uneetan ere. Gugan sortzen duen sentimendua, zirrara, egonezina, suspensea eta batez ere hurrengo atala ikusteko irrikan egotea da. Hain zaila eta erraza era berean, hori da “cliffhanger”-a, istorio bat amaitzera doanean, ezusteko zerbait gertatu eta bat-batean “The End” hitzak ikusten ditugunean. “Hurrengo atala ikusi behar dut!”, “noiz da hurrengoa?” buruan bueltaka dabilzkigun bitartean, baliabide honek lortu du bere helburua, ikuslea harrapatu eta hurrengo emanaldien garapenaz interesatzea. Ez du zertan sekuentzia oso bat izan, istorioaren eta medioaren arabera, irudi soil bat izan daiteke, ekintza bat ala zergatik ez, esaldi bat.

Jatorria, 1873ko *A pair of blue eyes* izeneko pulp-eleberrian dauka. Istorio zati hauek hilabeteetan behin argitaratzen ziren egunkariarekin batera. Espero zen bezala, Thomas Hardy idazleak liburu horren heroia amildegitik zintzilik uztea erabaki zuen. Hortik aurrera hainbat idazle, baliabide erraz bezala erabiltzen hasi ziren. Urte batzuk geroago, zazpigarren artera egin zuen salto, eta bien arteko lotura erabat argi ez dagoen arren, badirudi zinema-mutuan aurki dezakegula sorrera, *The Perils of Pauline* izeneko film-sorta batzuetan konkretuki. Azken minutuetan, neska estatusuntan ikusiko zenuen beti, hiltzeko zorian, baina hurrengo emanaldiaren hasieran libratu egingo zen. Hortik komikietara eta azken hamarkadetan telesail eta bideojokoetara pasa zen efektu hau.

Egun existitzen den konpetentzia bortitza dela-eta, ikuslea fidelizatzea ezinbesteko arma bihurtu da. Edozein istorio puska txikietan zatikatzean baliabide hau tartekatzeak tresna oso eraginkor bihurtzen du. Modu honetan, ikuslea/irakurlea/jokalaria irrikan uzten du guztiz harrapatu utzi duen istorio horren amaiera nola izango den jakin arte. Beti ere, noski, gidoiarekin



bat etorri behar duen errekurtsua dela nabarmenduz, eta ez tranpa lardaskaria. Gainontzean, azkenean amildegitik behera eror daitekeena telesaila bera izan daiteke.

Eta zergatik da hain eraginkorra efektu hau? “Zeigarnik efektua” izeneko fenomeno psikologiko bati esker. Amaitu gabeko zereginak edo erraztasun gehiagorekin eten direnak, guztiz amaitu direnak baino errazago gogoraztearen joerari deritzo. Taberna batean zegoela antzeman zuen fenomeno hau Bluma Zeigarnik psikologoak. Bertako zerbitzari batek egiteke zituen eskaera zerrenda luze bat erraztasunez gogoratzen zuen, baina zerbitzatu berri zituen platearen izenak aldiz, ez zituen oroitzen.

Lost, *Dexter* edo *Prison Break* bezalako telesailak ospetsu egin dira azken urteetan, baliabide hau etengabe erabili dutelako, ikuslea atzazalik gabe eta urduritasun kontrolaezin baten menpe utziz. Tamalez badira beste hainbat kasu, “Cliffhanger” erraldoi baten menpe betiko geratuko direnak, bertan behera geratu ziren *Carnivale*, *Deadwood* ala *Pushing daisies* esaterako. Trama-ekin gehiegi arriskatu zutelako ala besterik gabe, erdi-mailako ikusleek ez zutelako haien handitasuna ikusi nahi, merezitako amaierarik gabeko telesail bihurtu dira.

Beraz badakizue, kontuz amildegitik zintzilik geratzearekin, igotzen laguntzeko soka jaso beharrean zulora bidaliko zaituzten ostikada jaso dezakezuelako. ■

Gaizka Izagirre